

ANDANTE

markeliñe



2015 eko Euskadiko Kale
Ikuskizunik Oneraren
UMORE AZOKA Saria





ANDANTE *Markeliñe antzerki taldea*

- **EKOIZPENA** 3-4
- **TALDE ARTISTIKO TEKNIKOAK** 5
- **IRUZKINAK** 6-7
- **ZEHAZPEN TEKNIKOAK** 8-9
- **KALEA ERALDATZEN** 10
- **KONPAINIA** 11-12
- **KONTAKTUA** 13





EKOIZPENA

“**Andante**” kalean dabilen eta kalea paisaia artistiko bilakatzen duen ikuskizuna da.

“**Andante**” mozorro antzerkia da eta, era poetikoan, hitzik gabe eta umore zainduarekin, ahaztu behar ez genituzkeen istorioak kontatzen ditu. Gerra garaiko zapata anonimoen istorioak.

“**Andante**” edertasun artistiko handiko proposamena da, eta gogoeta, salaketa eta omenaldia iradokitzen ditu, kaleko ikus-entzuleekin konpartitzeko asmoz. Baina, beste ezer baino gehiago, hunkitu egiten duen antzezlan da.



Marea goian zegoen batean, kalea hondarrez eta zapataz beteta agertu zen. Itsasoak, kontatu beharreko istorioak itzuli zituen lehorrera.

Oinezkoek harrিতuta galdetzen zuten, Nola heldu dira honaino? Norenak dira? Zer kontatu nahi digute?

Antzezleak agertu aurretik, kalea artelan bilakatzen da: ikus irudi arraroak eta enigmatikoak iradokitzen dituzten instalazio artistikoak irudikatzen dira. Hareak, zapatek eta beste elementu batzuek osatzen dute oinezkoa, irudien esanahiarengatik galdetuz paseoan ari den artelana.

Geroago, Hiru pertsonai, euren gurdiarekin eta musikari batekin, kalean aurrera doaz, lurrean aurkitzen dituzten zapatak batuz, beraien istorioak kontatzen dituzten bitartean. Horrela, aurreko instalazioak euren esanahia eskuratuz doaz. Antzezleak horietako bakoitzaren aurrean gelditzen dira, eta irudi estatikoan ezkututzen den istorio mugikor osoa kontatuz.

Antzerkiaren magiak, gizakion izatearen argi-ilunak erakusten dituzten istorioen protagonista bilakatzen ditu zapatak.

Dantza egiten duten, emigratzen duten, maitemintzen diren, jaiotzen eta, euren borroroen esku hiltzen diren zapatak.

“Andante” lanak, gerretan edo oinarrizko eskubideak zapaltzen diren egoeretan zapata arruntei gertatzen zaienari buruzko gogoeta egiten du. Desegindako etxe baten hondakinetatik agertzen diren zapatak... Desberdin pentsatzeagatik ezkutatu egiten diren eta jazarpena jasaten duten zapatak... Euren borroroak zigorrik gabe ikusita aldarria egiten duten zapatak... Gureak izan daitezkeen zapatak.



TALDE ARTISTIKO TEKNIKOA

- **Izenburua:** Andante
- **Bertsio linguistikoa:** Testu gabea
- **Autoretza:** Markeliñe
- **Zuzendaritza:** Markeliñe
- **Koordinazioa:** Iñaki Eguiluz
- **Antzezleak:** Jon Kepa Zumalde
Itziar Fragua
Fernando Barado
Roberto Castro
- **Zuzendaritza teknikoa:**.... Paco Trujillo
- **Eszenografiaren
diseinua eta burutzea:**.... Pako Ruiz
- **Atrezzoak:**..... Quimeras FX
- **Jantzien diseinua:**..... Iban Lopez
- **Jantzien burutzea:**..... Osic Sastre
- **Musika:**..... Roberto Castro
- **Argazkiak:**..... Txelu Angoitia
- **Distribuzioa:**..... Joserra Martinez
- **Komunikazioa:**..... Gloria Hernandez
- **Diseinu grafikoa:**..... Itsaso Benedicto





IRUZKINAK

“Andante emanaldia ederra izan zen. Estetika ederra, erritmo pausatua baina eraginkorra. Emozioa, musika zuzenean... alde oso onak ditu”

Imanol Agirre. Lekeitioko Nazioarteko kale antzerkia Jaialdiaren Zuzendaria

“Markeliñe Konpainia Tárregako 2014ko Firaren edizio honetako ustekabe atseginetakoa izaten ari da, Andante lan ibiltariarekin”


Diario SEGRE (14/9/2014)

“Benetan ederrak, ibiltaria izanik, mezua helaraztea eta hunkitzea lortzen duen ikuskizuna”

Angels Travvé. Bartzelona (22/9/14)

“Une batzuetan dibertigarria, emotiboa, sentsibiltate handikoa den lana. Aztarna aurkitzen baduzue, ahalegindu zaitezte biziraupenaren soinuarekin identifikatu daitekeen soinuari jarraitzen dion gurdi hori berreskuratzen.”

Jordi Bordes. www.recomana.cat



ZEHAZPEN TEKNIKOAK

- Ibilbideak 150-200m. egiten ditu gutxi gorabehera.
- Etorbide edo kale zabala, laua eta trabarik gabea, trafiko gabea. Plaza edo barruti zabaletan ere egin daiteke.
- Antzezlanean erabiltzen den gurdiak **3m.**ko luzeera eta **2m.**ko zabalera dauka, altuera 3,5m.koa da. Gurdiak antzelaneko ibilbide osotik ibiltzeko erraztasuna izan behar du.
- **Hiru pertsona** instalazioak zaintzeko eta kontrolatzeko, ordu bete lehenagotik, ibilbidean zehar eta antzezlanaren ondoren (2 ordu eta erditan).
- **Sarbide** librea furgonetarentzat hasierako tokiraino, materiala deskargatu ahal izateko.
- Deskargatu ondoren furgoneta **aparkatuta** izateko lekua, berriro kargatu behar arte.
- Komenigarria izango litzateke **hasieratik gertu** komuna duen tokiren bat egotea, kamerino gisa erabili ahal izateko.
- Ura.
- **Muntatzeko behar den denbora:** 3 ordu.
- **Ikuskizunaren iraupena:** 45 min
- **Desmuntatzeko behar den denbora:** ordubete.

Oharra: Edozer gauza argitzeko, jar zaitezte gurekin harremanetan.


markeline@markeline.com

Tel: +34 94-673 32 57



“Ihesaldia”

7m.
luzeera



30 m.


“El baile”

6m.
diametro



“Santiago de Chile 1973”

6m.
diametro



30 m.

30 m.

“Biziak itsasora
doazen ibaiak dira”

10m.
diametro



6m.
diametro

“Lotan dauden
botak”

30 m.



Neurri guztiak gutxi gorabeherakoak dira.

KALEA ERALDATZEN

Lehenengo instalazioa “Ihesaldia”: Leku aldaketa, ihesa agian, iradokitzen duen zapata ilara.

Bigarren instalazioa “Dantza”: Zapatez osatutako paisaia erakusten du desegindako etxe baten hondakinen artean.

Hirugarren instalazioa “Santiago de Chile 1973” (Kolpe militarra): Aurrerago maleta bat egongo da, bere gainean emaztegaiek ezkontzetan eraman ohi duten lore-sorta duela, eta soka bat eta zapata gehiago berari lotuta.

Laugarren instalazioa “Lotan dauden botak”: Antzinako mikrofono bat erakusten digu, oihal batez erdi estalita dauden bota altu batzuekin batera. Haren aurrean zapata solteen auditorio bat.

Bostgarren instalazioa “Biziak itsasora doazen ibaiak dira”: Zapata pareek inguratutako zirkulu erdia da, eta haren erdian, hondartzako hareatan erdi lurperaturik dauden hiru zapata solte.



KONPAINIA

1987an sortutako konpainia. Bilbo. Euskal Herria.

Markeliñek oso estilo pertsonalarekin sortzen ditu bere ikuskizunak. Egiteko era horrek, kode eszeniko pertsonala duten sorkuntza lan bitxiak, imajinazioz beteak, eta harrigarriak sortzen dituen talde gisa definitzen du taldea ikusle handien eta txikien aurrean. Eta beti ere antzezleen keinu lanean oinarrituz.

Eremu bakoitzean, Markeliñek hizkuntza propioa aurkitu du. Objektuei, estetikei eta hizkuntzei buruzko ikerketak aintzatespen garrantzitsuak eman dizkio antzerki munduan. Kalean, espazio handiak erabiliz, gauaren magiaren babespean batzuetan, edo egun argiz besteetan. Musika da emozioen hari gidaria, aurpegi anitz dituzten istorioen bitartez ikusentzulea erakartzeko.

Keinuetan eta ikusmenean oinarritutako hizkuntzaren bilaketa horrek presentzia finkatua eman dio Markeliñeri antzerkiaren panoraman.





» Azpimarratzekoa da Markeliñe konpainiak nazioarteko hainbat jaialditan hartu duela parte (Frantzia, Belgika, Holanda, Austria, Finlandia, Kroazia, Portugal, Irlanda, Mexiko, Kolonbia, Hego Korea, Dominikar Errepublika, Ingalaterra,...), eta bere lanek aintzatespen garrantzitsuak jaso dituztela, beraien kalitatea dela eta.

• Azpimarratzekoa da, baita ere, Londoneko National Theatre izenekoaren Udako Jaialdia-ren hiru ediziotan hartu duela parte “**Carbón Club**” ikuskizunarekin.

Markeliñe taldea:

Zuzendaritza artistikoa: Iñaki Egiluz, Joserra Martínez.

Zuzendaritza teknikoa: Jon Kepa Zumalde, Paco Trujillo.

Antzezleak: Sandra Fdez., Itziar Fragua, Fernando Barado, Jon Koldo Vázquez, Roberto Castro, Anduriña Zurutuza.

Kudeaketa eta komunikazioa: Gloria Hernandez. Itsaso Benedicto.





2015 eko Euskadiko Kale
Ikuskizunik Oneraren
UMORE AZOKA Saria

KONTAKTUA

José Ramón Martínez
Jon Koldo Vazquéz
Tel: +34 94 6733257

e-mail: markeline@markeline.com
mark@markeline.com

www.markeline.com

